



EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

**Online ikastaroa dohainik.
Kreditu 1 (25 ordu). Euskaraz
eta gazteleraz.**
Curso online gratuito. 1 crédito
(25 horas). En euskera y en
castellano.

www.ehu.es

Kurtsoa / Curso:

**2021eko otsailaren 8tik
martxoaren 8ra**

**Del 8 de febrero al 8 de
marzo del 2021**

**Izena-ematea /
Inscripciones:**

**2021eko urtarrilaren 8tik
29ra, biak barne**

**Del 8 al 29 de enero del
2021, ambos inclusive**



EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA

Izen -emate datak: 2021eko
urtarrilaren 8tik 29ra, biak barne

IKASTAROA: 2021eko otsailaren 8tik
martxoaren 8ra

ONLINE IKASTAROA
IKASLE, AZP ETA IIPENTZAT

100 PLAZA
EUSKARAZ ETA
GAZTELERAZ DOHAINIK
25 ORDU (KREDITU 1)

ARDURADUNA:

ENARA AGIRRE ARRIZABALAGA

EBALUATZAILE TALDEA:

ELO MAYO CABERO

CHRISTINA WERCKMEISTER LACARRA

MIKEL OTXOTORENA FERNÁNDEZ

JOSETXU RIVIERE ARANDA

TALDE TEKNIKOA:

JOSETXU RIVIERE ARANDA

ENERITZ IBARGUENGOITIA BASTERRETXE

PROGRAMA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUNA

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. XEDEAK	3
3. GAITASUNAK	4
4. EDUKIAK	4
5. IRAUPENA	5
6. METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA	6

Antolatzailea: UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren Arloko Errektoreordetza eta Berdintasunerako Zuzendaritza.

Egileak: Elo Mayo Cabero, Christina Werckmeister
Lacarra, Mikel Otxotorena Fernandez eta Josetxu Riviere
Aranda.

1. SARRERA

Gure gizartean egin den eraldaketarik handienetako bat emakumeak hezkuntza formalera sartzea izan dela baieztatu dezakegu. Lehen geneuzkan hesiak desagertuz joan dira, emakume askoren eta gizon batzuen borrokari eta konpromisoari esker, berdintasuna giza eskubideen defentsaren erdigunean jartzeko prest agertu baitira horiek.

Alabaina, ezin dezakegu "berdintasunaren ameskeriak" harrapa gaitzala utzi, ez eta egun dauden berdintasun-gabeziak ukatu ere. Izan ere, aurkakoa egin behar dugu. Indarrean dagoen gizarte-ereduari buruzko hausnarketa sakona egin behar dugu. Berdintasun-gabeziak dituen gizartea nola eraikitzen den ulertu behar dugu, gero eta berdintasunezkoagoak diren eredu berriak eraiki ahal izateko.

Horretarako proposatzen dizuegu prestakuntza interaktiboa egitea, modu kolektiboan barneratu ditzagun edukiak. Genero-desberdinkeria sorrarazten duten funtsezko kontzeptuen jatorria eta funtzionamendua aztertuko ditugu. Honaino ekarri gaituen historia eta horren bilakaera ezagutuko ditugu, bai eta egun dauden berdintasun-gabeziei buruzko zenbakiak eta datuak, politiken eta mugimenduen ildoak, aldaketen aurrean agertzen diren erresistentziak eta eskura ditugun eraldaketarako tresnak ere.

Azken batean, begirada-aldaketa hori zuen bizipenetan proiektatu ahal izatea da kontua. Horixe da ikastaro honen helburua. Berdintasunera hurbiltzea, baina ez ezagutzatik bakarrik abiatuta: unibertsitateko ikasleentzat oso interesgarria izan behar da, uste osoz, berdintasuna ikaskuntzaren zeharkako zatia izatea.

2. XEDEAK:

Ikasleek errealitatea genero-ikuspegitik hobeto ulertu ahal izateko ezagutza teoriko-praktikoak lortzea da ikastaroaren helburua.

Genero-diskriminazioak hautematea eta horiek gainditzeko proposamenetan aurrera egitea ahalbidetuko duten askotariko tresna teoriko eta metodologikoetan trebatu beharko dira.

Mugimendu feministaren historia ezagutzea, egungo egoera ulertzeko ezinbesteko esparru gisa.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lan-estrategia publikoak eta lan egiteko proposamenak ezagutzea.

Egitura sexistaren ondoriozko ideiak, pentsamenduak, jarrerak eta jokaerak identifikatzea eta horiei alternatibak jartzea, eta egitura sexista horrek pertsonengan eta taldeengan dituen ondorioak ebaluatzea.

Berdintasuneko balioak transmititu nahi zaizkie ikasleei, beren bizitza pertsonalean nahiz profesionalean sar ditzaten.

3. GAITASUNAK:

- Genero-desberdinkerietarantz bideratzea ikasleen sentsibilitatea, testuinguru ezberdinetan.
- Genero-ikerketen gaineko kontzeptu nagusiak ezagutzea, bai eta horien berrikuspenak eta ekarpenak ere.
- Diskriminazio- eta desberdinkeria-egoerak identifikatzea, horien esanahi eta ezarpen ezberdinak ulertuz.
- Berdintasunerako politiken ibilbidea, horien bilakaera, ezarpen praktikoa eta berdintasuneranzko bidean dauden erronkak ezagutzea.
- Azterlan feministek eta generokoek egiten duten ekarpena ulertzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromiso etikoa.
- Gaitasun kritikoa garatzea genero-desberdinkerien aurrean, errealitatea genero-ikuspegitik aztertzen ikasiz.

4. EDUKIAK:

Genero-desberdinkeria eragiten duten oinarritzko elementuak Sexu-genero sistema. Generoaren sozializazioa. Genero-berdintasunaren kontzeptua:

- Sexu/genero sistema: zer zerikusi dauka sexuak generoarekin?
- Desberdintasuna ala berdintasun-gabezia? Hierarkiak eta balio soziala.

- Generoaren sozializazioaren prozesua: estereotipoak eta rolak, identitateak eta aniztasunak.
- Androzentrismoa eta genero-ikuspegia. Begirada-aldaketarantz5. Sexismoa eta diskriminazioa: zuzena, zeharkakoa, horizontala eta bertikala.
- Eraiki egin badugu, deseraiki egin dezakegu. Aldaketa feministaren mugarriak:

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-gabezien diagnostikoa:

- 1.- Sarrera.
- 2.- Oinarrizko kontzeptuak erreparatu.
- 3.- Testuingurua: Orokortasunetik abiatuta, emakumeen eta gizonen egoeraren argazki azkarra, nazioarteko mailan: mundu mailan/Europako mailan/estatuko mailan.
- 4.- Aurrerapenak eta erresistentziak.
- 5.- Etorkizuneko erronkak.

Berdintasunerako politikak. Bilakaera eta kontzeptu nagusiak:

- 1.- Sarrera: Berdintasunerako politikaren jatorria.
- 2.- Oinarrizkoa ulertu: Oinarriak eta esparru kontzeptuala: emakumeen eta gizonen berdintasunaren kontzeptua legean. Tratu-berdintasuna: diskriminazio zuzena eta zeharkakoa. Aukera berdintasuna. Genero-ikuspegia. Ideia-zaparrada. Ekintza positiboa. Aniztasuna eta ezberdintasuna.
- 3.- Politikek Europar Batasunean eduki duten bilakaera. Etapak eta programak. Berdintasunerako legeak estatu espainiarrean.
- 4.- Gure autonomia-erkidegoan. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. Lan-egiturak. Berdintasunerako planak.
- 5.- Etorkizuneko erronkak.

Berdintasunaren lorpenean egin diren aurrerapenak eta dauden erresistentziak. Emakumeen ahalduntzea:

- 1.- Berdintasunerantz egin diren aldaketak. Eraldaketa garrantzitsu batzuk: Hezkuntzan, lanean, familian, parte-hartze politikoan. Feminismoak berdintasunaren aldeko borrokan duen eginkizuna.
- 2.- Oztopoak identifikatu: Berdintasunaren ameskeria, publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa: emakumeak eta gizonak sozializatzeko ereduak, androzentrismoa: "maskulinoa" denaren unibertsalizazioa. Erreferentziazko eredu gabezia. Lidergotzarako eta negoziatorako metodoak.

3.- Berdintasuneranzko estrategiak bilatu: "Kristalezko sabaia" deiturikoa hausten duten ekintzak, sentsibilizazioa, ekintza positiboak, lidergotza egonkortzea, itunak eta sareak, ideia-zaparrada Gizonen eginkizuna.

4.- Emakumeen ahalduntzea: Kontzeptuaren jatorria eta bilakaera. Kontzeptuak: Zer den ahalduntzea, ikuspegi feministatik begiratuta. Ahalduntzea eta boterea.

5. IRAUPENA:

Ikastaroak 25 ordu iraungo ditu guztira, hilabetean banatuta horiek.

Hasiera-eguna: otsailaren 8a

Amaiera-eguna: martxoaren 8a

6. METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA:

Ikastaroko gai bakoitzean, hau egongo da:

- Unitate bakoitzaren eduki teorikoa: Gaia sakon landuko duen ekarpen teorikoa (15 orrialdekoa gehienez).
- Dokumentazioa: Unitate didaktiko guztiek edukiko dute beren zerrenda bibliografikoa, baita erreferentziatzko gaietan sakondu ahal izateko beharrezkotzat jotzen diren baliabide guztiak ere (bideoak, albisteak, webetako estekak eta abar).
- Foro parte-hartzailea: Ikasleek nahitaez hartu beharko dute parte foroetan (gutxienez, gai bakoitzeko batean), ikastaroaren xedeak gainditu eta ziurtagiria lortzeko. Foroan, artxiboak eta dokumentuak partekatu ahalko dira.
- Testa: Jaso diren ezagutzak baloratzeko asmoz, ezagutza-testa egin beharko da unitate didaktiko bakoitza amaitzean, eta hurrengo unitatera igarotzeko betekizuna izango da.
- Ikastaroa amaitzeko azken ariketa egin eta gainditu beharko da.